

BERTSOAK: Euskal itsasoa

DOINUA: Naparruatik ardo karraio

(entzuteko):

<http://bdb.bertsozale.eus/web/doinutegia/view/1529-naparruatik-ardo-karraio-i-norteko-trenari-salsamendiko-bilera-horretan>

Euskal Herrian ikus daiteke
dugun itsaso zabala,
bertan bizi dira makina bat
txitxarro eta berdela.
Zoritxarrez asko desagertu
dira urteak pasa ahala
euskara zaindu behar genuke
itsas kontuak bezala.



Bizkaiko kosta Euskal Herrian
oso da esanguratsua,
orokorrean hondartza handiak
eta inguru labartsua.
Gainera bi itsasadar ditugu
bat Urdaibai baketsua
laburbilduz esan genezake
dela kosta malkartsua.

Gipuzkoako kostak, bestalde
hegia handiagoa,
hondartzei dagokienez, aldiz
txiki ta harritsuagoa.
Itsasadarrak ere badaude
adibidez Bidasoa
menditsuetan menditsuena
hortaz Gipuzkoakoa.



Hirugarren, Lapurdiko kosta
Jaizkibeldik ikusia,
Bidasoa ta Atturri ibaiek
urak bertan isuria.
Hendaian Ondarraitz hondartza ta
Abbadia jauregia,
ipar-ekialdean Ziburu
bustitzen duen badia.

Hirurogeita hamabost hondartza
ditugu guk gozatzeko,
bateko Zurriola edo Kontxa
eta Aritzatxu besteko.
Batzuk lasaitzeko toki apartak
besteak surfeatzeko
gauza txar asko ditu hondartzak
baina gehienak aldeko.

Mendebaldetik ekialdera
baditugu uharteak,
urez inguraturiko leku
bakarti eta berdeak.
Gaztelugatxe eta Billano
benetan aipatzekoak
nik Bedua eta Santa Klara
ditut gogokoagoak.

